

Kondairak dio Purpura kapitainaren  
itsasontzi mamuak altxor handi bat daukala.  
Daniela eta bere eskifaiak aurkitu nahi dute,  
baina ausartuko al dira itsasontzia  
inguratzen duen lanbroan barrena sartzen?



Daniela Pirataren beste abentura batzuk



ISBN: 979-13-88132-16-2 www.nubeocho.com



DANIELA ETA ITSASONTZI MAMUA



Susanna Isern & Gómez



# DANIELA PIRATA ETA ITSASONTZI MAMUA



SUSANNA ISERN  
& GÓMEZ





**Daniela Pirata eta itsasontzi mamua**  
Egalité bilduma

© testuarena: Susanna Isern, 2026

© irudiena: Gómez, 2026

© argitalpenarena: NubeOcho, 2026

© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026

www.nubeocho.com • info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Daniela Pirata y el barco fantasma*

Lehen argitalpena: Iraila, 2026

ISBN: 979-13-88132-16-2

Gordailu legala: M-11611-2026

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta lan honen kopiaketa.

*Yuna, nire neskato ausartari.*


Susanna Isern

# DANIELA PIRATA

## ETA ITSASONTZI MAMUA



SUSANNA ISERN  
& GÓMEZ





Daniela eta *Kaiman Beltza* ontziko eskifaia **PURPURA KAPITAINAREN**  
itsasontzi misteriotsuaren bila zebiltzan aspaldian. Kondairak zioenez,  
zazpi itsasoetako altxorrik handienetakoa gordetzen zuen, baina...  
**ITSASONTZI MAMUA** zen!



—Diotenez, itsasontzi horri **LANBRO** sare bat jarraika doakio,  
noranahi doala ere —azaldu zien Danielak.

*Kaiman Beltzak* **ASTEETAN ZEHAR** nabigatu zuen atsedetik gabe. Sumendi Irla, Irla  
Iluna eta Eguzkiaren Erreinua igaro zituzten. Ziklopea eta bere lagun balea erraldoia agurtu  
zituzten. Azkenik, egun batez, **URREZKO IRLAREN** kostaldera hurreratu ziren...



—Kapitaina! Lanbro sare bat! —egin zuen oihu **ITSASNESKA** batek masta gorenetik.

Daniela eta bere piratei arraroa iruditu zitzaien. Urrezko Irlan eguzki ederra zegoen beti, eta horregatik zirudien hango hondarrak **URRE PINPORTEZ** egina.



Lehorreratu eta **PORTURA** joatean, agure bat soilik aurkitu zuten bertan.

—Non da mundu guztia? —galdetu zuen Danielak.

—Itsasontzi Mamuaren errua da —erantzun zuen agureak—. Lanbroa ekarri zuen berekin, eta etorri zenetik, bizilagun ugarik alde egin du.

—**PURPURA KAPITAINAREN** itsasontzia izango da! —oihukatu zuen Danielak.



Hurrengo goizean, *Kaiman Beltza* **LANBROAN** barrena abiatu zen. Haren arriskuaz ohartarazi zituzten, baina Danielak itsasontzi hori eta bere **ALT XORRA** aurkitu nahi zituen, baita Purpura Kapitainari lanbro hori irlatik eramateko eskatu ere.



Zenbait orduz **NORAEZEAN** nabigatu ondoren, eskifaia ernegatzen hasia zen.

—**GALDU** egin gara —ohartarazi zuen pirata batek—. Ez al genuke Urrezko Irlara itzuli behar?  
—Ez dugu etsiko! —erantzun zuen Danielak.

Momentu hartantxe, *Kaiman Beltzak* balantza egin zuen eta **ZARATA OZEN** bat entzun zen, zerbaiten aurka talka egin balute bezala. Orduan, lanbro artetik, itsasontzi bitxi bat agertu zen eta hots beldurgarriak entzuten hasi ziren.

—Kapitaina, uste dut **MAMUAK** direla.

—Banoa ikustera —esan zuen Danielak, erabaki sendoz.



Kapitaina, jauzi batez, itsasontzi **MISTERIOTSURA** iritsi zen.

—**MAMU PIRATEZ** josita dago!

Izaki haiek begiratu bai, baina ez zuten eraso egiten.



Danielak ontzigainean aurrera egin zuen. Orduan kapitainaren

**KAMAROTETIK** zetorren **AHOTS** zakar bat entzun zuen.

—Hemendik **ERE** ez da! —zioen ahotsak atsekabez.



Kapitainak kamaroteko atea ireki zuen eta...